

11/13 makroepaketako auzipetuei babesa erakutsiko diegu larunbatean, Bilbon egingo den manifestazioan

LABeko ordezkari zabal bat Bilbon izango da larunbatean, 11/13 makroepaketako auzipetuei babesa emateko eta makroepaketa bera bertan behera utz dezaten exijitzeko. Sindikatuko idazkari nagusi ondoko Igor Arroyok, Ekintza Sindikala eta Negoziazio Kolektiboko idazkari Xabier Ugartemendiak eta Industria Federazioko idazkari Eulate Zilonizaurrekoetxeak epaketa atarian egingo den manifestazioan hartuko dute parte (Bilboko La Casilla, 17:30). Larunbateko mobilizaziorako deia egiteko, joan den ostiralean, gehiengo sindikaletik [elkarretaratzeak egin genituen](#) Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Aurretik, hainbat eragilerekin batera, [babesa erakutsi genien](#) auzipetuei, baita [eurekin beraiekin bildu ere](#).

Horrela, LABek dei egiten langileei datorren larunbatean “47ak herrian” lemarekin Bilbon deitutako mobilizazioan parte hartzera.



[47ak herrira](#)

[Sinatu manifestua!](#)